## Beldurra eta fantasia Intxaurrondon

Intxaurrondoko Gabriel Celaya plaza fantasia eta beldurrezko zinemaren topaleku bihurtuko da uztailaren 14tik 17ra bitarte. Asteazkenean, uztailak 14, Ridley Scott zinemagilearen "Alien" maisulana izango da ikusgai. Ostegunean, Steven Soderbergh finaren "Solaris" zientzia-fikziozko filma eskainiko dute. Ostiralean, hilak 16, "Underworld" filma emango dute. Bryan Singer zinemagilearen "X Men 2" arrakastatsuak itxiko ditu larunbatean, uztailak 17, zinema fantastikoaren emanaldiok. Film guztiak 22:30ean proiektatuko dira.





## erakusketak

- Juan Jimenezen pintura erakusketa. Groseko Okendo kultur etxean, uztailaren 10a arte.
- Esperanza Zabala artistaren "La ruina" erakusketa Groseko Arteko galerian (Sekundino Esnaola 3), uztailaren 10a arte.
- "Katalina Erauso arte elkartearen sorrera": tapizak eta zeramikak. Kutxa Boulevard aretoetan, uztailaren 11 arte.
- "Erretirodun eta Pentsiodunen I. Arte eta Kultur Lehiaketa". Kutxa Boulevard aretoetan, uztailaren 11 arte.
- "Kantauri itsasoko koloreak" argazki erakusketa. Aquarium-ean , uztailaren 18a arte.
- Ricardo San zen pinturak Echeberria arte galerian (Zubieta 20), uztailaren 21a arte.
- "Rufino Tamayo. Obra grafikoa". Groseko Okendo kultur etxean, uztailaren 24a arte.
- "Artizarraren iragaketa" mikro-erakusketa. Miramongo Zientziaren kutxagunean (Mikeletegi pasealekua 43-45), abuztuaren 15a arte.
- Isidoro Guinea pintorearen artelanak. Untzi Museoan (Kaia 4), irailaren 19a arte.
- Marta Cardenas artista donostiarraren pinturak Koldo Mitxelena kulturuneko Ganbara aretoan, irailaren 25a arte.
- Manifesta 5 arte garaikidearen erakusketa: San Telmo Museoan, Kursaaleko Kubo aretoan, Koldo Mitxelenan eta Aquariumaren sotoan artelanak ikusgai, irailaren 30a arte.

## The Croppers Loiolan

The Croppers musika taldeak kontzertua eskainiko du ostiralean, uztailak 16, Loiolako Miner tabernan, 23:00etan. Duela bi urte sortua, The Croppers-ek rhythm & blues eta rock & roll musika estiloak jorratzen ditu, batik-bat. Eskarmentu handiko musikariz osaturik dago Mikel San Jose kantariaren taldea.

